

Lan-kostuaren urteko inkesta  
2022. urtea

**Langile bakoitzeko kostu gordin osoa 36.826,89 eurokoa izan zen Nafarroan 2022an, aurreko urtean baino % 3,9 handiagoa**

2023ko uztailaren 26a

Madrilgo Erkidegoaren, EA Eren eta Kataluniaren atzetik, Nafarroa izan zen lan-kostu garbi handieneko laugarren erkidegoa

## URTEKO LAN-KOSTUA LANGILEKO

**Lan-kostu gordina.** Langile bakoitzeko lan-kostua, termino gordinetan, 36.826,89 eurokoa izan zen 2022an, Lan-kostuaren urteko inkestatik (EACL) ondorioztatzen denaren arabera. Inkesta horrek hiru hilean behin osatzen ditu Lan-kostuaren hiru hilean behingo inkestatik (ETCL) lortutako emaitzak. Kostu horrek % 3,9ko igoera dakar 2021arekin alderatuta.

Soldatak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak, batera, lan-kostu gordinaren % 97,56 izan ziren. Soldatez eta kotizazioez gain, urteko langileko 548,09 euro bideratu ziren onura sozialetara (aseguruetarako borondatezko kotizazioak eta pentsio-planak, Gizarte Segurantzaren prestazio osagarriak eta gizarte-gastuak), 123,93 euro lanaren ondoriozko beste gastu batzuetara (kontratua amaitzearen ondoriozko kalte-ordainak, tresna txikiak eta laneko arropa, lantokirainoko garraioa, langileen hautaketa...), 143,97 euro kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainetara eta 82,36 euro lanbide-prestakuntzara.

Bestalde, soldata gordinak % 3,8 igo ziren, eta soldataz kanpoko kostuak % 4,1.

**Lan-kostu garbia.** Datu gordinetik Administrazio Publikoetatik dirulaguntza eta kenkari gisa jasotako 209,08 euroak kentzen badira, 36.617,81 euroko kostu garbia ateratzen da. Kostu garbi horrek % 3,9ko igoera izan du.



## 1. TAULA

Urteko kostuaren osagaiak Nafarroan (eurotan). 2022. urtea.

	Euro
<b>KOSTU GORDINA</b>	<b>36.826,89</b>
Soldatak eta lansariak	26.998,62
Nahitaezko kotizazioak	8.929,92
Onura sozialak	548,09
• Borondatezko kotizazioak	188,22
• Zuzeneko gizarte-prestazioak	352,50
• Gastu sozialak	7,37
Kaleratzearen kalte-ordainak	143,97
Lanbide-prestakuntzako gastuak	82,36
Lanaren ondoriozko gastuak	123,93
• Garraio-gastuak	14,70
• Gainerako kostuak	109,23
Dirulaguntzak eta kenkariak (-)	209,08
<b>KOSTU GARBIA</b>	<b>36.617,81</b>

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

Kostu gordinak bazter uzten ditu dietak eta bidaiá-gastuak.

Gainerako kostuetan sartzen dira kontratu-amaieraren ondoriozko kalte-ordainak, konpentsazio-ordainketak, tresna txikiak, laneko arropa, langileen hautaketa, etab.

## 2. TAULA

Soldatak eta lansariak, eta kostu garbia Nafarroan (eurotan). 2009-2022 bilakaera.

	Soldatak eta lansariak		Kostu garbia	
	Euro	Urtetik urterako tasa (%)	Euro	Urtetik urterako tasa (%)
2009	23.365,88		31.695,52	
2010	23.724,93	1,5	32.065,27	1,2
2011	24.018,28	1,2	32.391,83	1,0
2012	23.372,73	-2,7	31.908,37	-1,5
2013	23.298,90	-0,3	31.789,27	-0,4
2014	23.732,45	1,9	32.177,18	1,2
2015	23.698,00	-0,1	31.923,60	-0,8
2016	23.595,94	-0,4	31.823,15	-0,3
2017	24.571,83	4,1	32.973,63	3,6
2018	24.990,87	1,7	33.615,92	1,9
2019	25.474,50	1,9	34.444,42	2,5
2020	25.441,52	-0,1	34.508,28	0,2
2021	26.016,27	2,3	35.255,41	2,2
2022	26.998,62	3,9	36.617,81	3,9

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.




## LAN-KOSTUA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

**Nafarroako Foru Komunitatea.** Laugarren postuan dago, langileko 36.617,81 euroko lan-kostu garbiarekin, Madrilgo Erkidegoaren (40.131,84 euro), Euskal Autonomia Erkidegoaren (36.624,16 euro) eta Kataluniaren (36.739,55 euro) azpitik.

Hurrengo grafikoan autonomia-erkidegoetako lan-kostu garbiaren hazkunde-tasak ikusten dira, eta Kanarietan eta Balear Uharteetan izandako igoera nabarmentzen da.

### 1. GRAFIKOA

Lan-kostu garbia. Urteko aldakuntza-tasa (%-tan). 2022. urtea.



Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.



### 3. TAULA

Lan-kostu garbia langileko. 2022. urtea.

	Euro	Urtetik urterako tasa (%)
Madrilgo Erkidegoa	40.131,84	3,3
Euskal Autonomia Erkidegoa	39.624,16	2,5
Katalunia	36.739,55	4,9
<b>Nafarroako Foru Komunitatea</b>	<b>36.617,81</b>	<b>3,9</b>
<b>Guztira</b>	<b>34.058,83</b>	<b>4,1</b>
Asturiasko Printzerria	<b>33.451,75</b>	<b>2,6</b>
Aragoi	32.683,65	3,6
Balears, Illes	32.193,49	9,3
Kantabria	31.814,91	4,8
Errioxa	30.861,29	5,3
Comunitat ria:	30.818,42	4,1
Gaztela eta Leon	30.717,88	3,6
Gaztela-Mantxa	30.576,03	4,9
Galizia	30.567,75	3,1
Andaluzia	30.055,14	3,9
Murtziako Eskualdea	29.961,87	1,2
Kanariak	28.722,58	10,8
Extremadura	27.430,24	4,2

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

### LAN-KOSTUA JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA

**Lan-kostu garbia.** Jarduera-sektoreka, 2022an, industriak izan zuen lan-kostu garbi handiena, langile eta urte bakoitzeko 40.733,87 euroko lan-kostu garbiarekin; ondoren, eraikuntzak (37.665,15 euro) eta zerbitzuek (34.732,40 euro).

**Urtetik urterako aldakuntza.** Zerbitzuek % 4,7ko urtetik urterako igoera izan zuten lan-kostu garbian eta industriak eta eraikuntzak % 3,0koa eta % 1,6koa, hurrenez hurren.

### 4. TAULA

Nafarroako urteko lan-kostu garbiaren osagaiak jarduera-sektoreen arabera (eurotan). 2022. urtea.

	Kostu garbia		Soldatak eta lansariak		Soldataz kanpoko kostua (*)	
	Euro	Urtetik urterako tasa (%)	Euro	Urtetik urterako tasa (%)	Euro	Urtetik urterako tasa (%)
<b>GUZTIRA</b>	<b>36.617,81</b>	<b>3,9</b>	<b>26.998,62</b>	<b>3,8</b>	<b>9.619,19</b>	<b>4,1</b>
Industria	40.733,87	3,0	29.474,17	3,7	11.259,70	1,4
Eraikuntza	37.665,15	1,6	26.867,25	1,1	10.797,90	2,9
Zerbitzuak	34.732,40	4,7	25.912,72	4,2	8.819,68	6,3

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.


Kostu garbia = kostu gordina - dirulaguntzak.

\* Dirulaguntzak eta kenkariak kenduta.



## 2. GRAFIKOA

Lan-kostu gordina industrian (eurotan). 2022. urtea.




Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

Industriaren sektorean, Nafarroako Foru Erkidegoa, 40.893,54 euroko lan-kostu gordinarekin, bosgarren erkidegoa izan zen Madrilgo Erkidegoaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Kataluniaren eta Asturiasen azpitik.



### 3. GRAFIKOA

Lan-kostu gordina eraikuntzan (eurotan). 2022. urtea.




Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

Eraikuntzaren sektorean, Nafarroako Foru Erkidegoak 37.841,75 euroko lan-kostu gordina izan zuen, eta bosgarren erkidegoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoaren, Kataluniaren, Madrilgo Komunitatearen eta Asturiasen azpitik.



#### 4. GRAFIKOA

Lan-kostu gordina zerbitzuetan (eurotan). 2022. urtea.



Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

Zerbitzuen sektorean, Nafarroako Foru Komunitatea, 34.965,31 euroko lan-kostu gordinarekin, laugarren erkidegoa izan zen Madrilgo Erkidegoaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Kataluniaren azpitik.



## LAN-KOSTUA ENPRESA-TAMAINAREN ARABERA

**Enpresa-tamainaren arabera.** Enpresa handienek (200 langile edo gehiagokoek) soldata handiagoak ordaindu zituzten langileko enpresa ertain eta txikiak baino (50-199 soldatapeko artekoek eta 50etik beherakoek, hurrenez hurren). Beraz, lehenengoek Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak ere handiagoak izan ziren.

### 5. TAULA

Urteko lan-kostu gordina Nafarroan, langilearen eta enpresa-tamainaren arabera (eurotan). 2022. urtea.

Enpresa-tamaina (*)	Kostu gordin osoa	Soldata eta lansariak	Nahitaezko kotizazioak	Dirulaguntzak eta kenkariak
1 eta 49 artean	31.902,93	23.303,23	7.875,72	211,11
50 eta 199 artean	37.418,85	27.500,12	9.115,71	233,84
200 eta gehiago	42.245,78	31.034,50	10.054,98	192,30

\* Langile-kopurua.

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

**Dirulaguntzak eta kenkariak.** Langile bakoitzeko dirulaguntza eta kenkari handienak, balio absolutuan, enpresa ertainek jaso zituzten, eta ondoren enpresa txikiak (1 eta 49 langile artekoek).

**Onura sozialak.** Onura sozialak nabarmen handiagoak izan ziren zentro handienetan, eta lanaren ondoriozko kostuak, berriz, handiagoak izan ziren zentro txikietan.

### 6. TAULA

Urteko lan-kostu gordinaren beste osagai batzuk Nafarroan, langilearen eta enpresa-tamainaren arabera (eurotan). 2022. urtea.

Enpresa-tamaina (*)	Onura sozialak	Lanaren ondoriozko gastuak	Kaleratzearen kalte-ordainak	Lanbide-prestakuntza
1 eta 49 artean	271,93	156,32	241,08	54,65
50 eta 199 artean	498,60	150,44	50,64	103,34
200 eta gehiago	899,22	69,74	85,08	102,26

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

\* Langile-kopurua.





## LAN-KOSTU GORDINAREN EGITURA

Kostu gordina osatzen duten partidetan (36.826,89 euro), hauek nabarmendu ziren: soldatak (26.998,62 euro) eta Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak (8.929,92 euro). Bien artean lan-kostu gordinaren % 97,56 hartzen dute.

Borondatezko kotizazioetan biltzen dira enplegatzaileak egiten dituen ekarpenak gizarte-aseguruen zirkuitu pribatuetara edo beste aseguru-erakunde batzuetara, Gizarte Segurantzako sistemaren bidez ezarritako prestazioak hobetzeko edo osatzeko. Bada, kotizazio horiek batez beste 188,22 eurora igo ziren langile bakoitzeko, eta kostu gordinaren % 0,51 izan ziren.

Zuzeneko gizarte-prestazioen kostuak dira enpresak langileari edo haren familiari edota, orobat, langile ohiari egiten dizkion ordainketak egoera jakin batzuetan eta gizarte-prestazio jakin batzuen osagarri gisa. Bada, kostu horiek 352,50 eurokoak izan ziren langile eta urte bakoitzeko, eta kostu gordin osoaren % 0,96 izan ziren.


Kaleratzearen kalte-ordainak 143,97 eurokoak izan ziren langile bakoitzeko, langile guztiak kontuan hartuta (ez kaleratutako langileak soilik), eta lan-kostu gordinaren % 0,39 izan ziren.

Lanbide-prestakuntzaren kontzeptuan 82,36 euro gastatu ziren langileko, guztizkoaren % 0,22.

### 5. GRAFIKOA

Lan-kostu gordinaren osagaiak Nafarroan. 2022. urtea.

■ Soldatak eta ordainsariak ■ Derrigorrezko kotizazioak ■ Bestelakoak



Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.



## LAN-HARREMANEN ERREGULAZIOA

**Hitzarmen kolektiboa.** Zentroen % 95,4k –hau da, Nafarroako Foru Komunitateko langileen % 82,0k– lan-harremanak hitzarmen kolektiboaren bidez erregulatu zituzten, eta proportzio handieneko esparrua Foru Komunitateko bertako hitzarmenena izan zen.

### 7. TAULA

Zentroak eta langileak Nafarroan, lan-harremanak erregulatzeko moduaren arabera (%). 2022. urtea.

	Hitzarmen kolektiboak			Beste erregulazio-modu bat
	Estatukoa	Foru Komunitatea	Enpresa edo lantokia	
Zentroak	19,5	70,7	5,2	4,6
Langileak	20,7	40,8	20,5	18,0

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

**Baldintzak aldatzea.** Hitzarmena zuten zentroen % 2,3k (hau da, langileen % 3,3k) aldatu egin zituzten beren lan-baldintzak, erreferentziako hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren aldean.

### 8. TAULA

Zentroak eta langileak Nafarroan, hitzarmen kolektiboaren baldintzak aldatu dituzten edo ez kontuan hartuta (%). 2022. urtea.

	Aldaketak guztira	Soldata-erregimena soilik	Aldaketarik gabe edo hitzarmenari lotu gabe
Zentroak	2,3	1,2	97,7
Langileak	3,3	2,0	96,7

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.

Kostuaren osagaiei dagokienez, lan-kosturik handiena izan zen hitzarmen kolektiboaz bestelako modu batean erregulatutako zentroetan, eta, ondoren, enpresako edo lantokiko hitzarmena zuten zentroetan.



## 9. TAULA

Kostuaren osagaiak Nafarroan, lan-harremanak erregulatzeko moduaren arabera (eurotan). 2022. urtea.

	GUZTIRA	Hitzarmen kolektiboak			Beste erregulazio-modu bat	
		Guztira	Estatukoa	Estatuaz beherakoa		Enpresa edo lantokia
<b>KOSTU GORDINA</b>	<b>36.826,89</b>	<b>34.861,28</b>	<b>33.017,11</b>	<b>32.249,97</b>	<b>40.475,39</b>	<b>42.665,81</b>
Soldatak eta lansariak	26.998,62	25.396,53	24.387,22	23.677,69	28.809,64	32.033,34
Nahitaezko kotizazioak	8.929,92	8.605,65	7.940,04	7.978,56	10.092,09	9.940,17
Borondatezko kotizazioak	188,22	219,97	156,23	61,89	599,41	44,29
Zuzeneko gizarte-prestazioak	352,50	317,54	262,19	213,67	580,50	580,55
Gastu sozialak	7,37	7,87	10,21	0,67	19,87	5,10
Kaleratzearen kalte-ordainak	143,97	120,36	92,94	139,53	114,63	0,03
Lanbide-prestakuntzako gastuak	82,36	94,06	94,33	60,03	161,61	29,32
Garraio-gastuak	14,70	16,61	3,14	21,03	21,41	6,04
Gainerako kostuak	109,23	82,69	70,81	96,90	76,23	26,97
Dirulaguntzak eta kenkariak	209,08	228,13	159,97	179,92	359,39	170,84
<b>KOSTU GARBIA</b>	<b>36.617,81</b>	<b>34.633,15</b>	<b>32.857,14</b>	<b>32.070,05</b>	<b>40.116,00</b>	<b>42.494,97</b>

Iturria: Lanketa propioa, Lan-kostuaren urteko inkestan (INE) oinarrituta.





#### OHAR METODOLOGIKOA

**Lan-kostuaren urteko inkesta** (EACL) urtean behin egiten den estatistika-eragiketa da, eta osatu egiten ditu Lan kostuaren hiru hilean behingo inkestan (ETCL) hiru hilean behin lortutako emaitzak. Emaitza horien urteko ikuspegia lortzen da horrela.

**Lan-kostuaren urteko inkesta** egiteko, Lan-kostuaren hiru hilean behingo inkestari (ETCL) erantsitako galdetegi bat erabiltzen da, datuen erreferentzia-urtearen hurrengo urteko otsaila eta apirila bitartean, agian nominetan hilero erregistratu ez diren kostu-partidak jasotzeko, haien epemuga hilabetetik gorakoa baita.

**Eragiketa-mota:** egiturazko inkesta, urterokoa.

**Biztanleria-esparrua:** Gizarte Segurantzaren kotizazio-kontuak. Erregimen orokorra: EJSN-09ren B-S sekzioak eta Itsasoko Langileen Erregimen Berezia: itsas garraioa (EJSN-09ren 50. dibisioa).

**Esparru geografikoa:** lurralde nazional osoa

**Emaitzen erreferentzia-aldia:** urte naturala.

**Laginaren tamaina:** 28.500 establezimendu

**Laginketa mota:** ausazko geruzatua, esleipen hoberenarekin. 500 langile baino gehiagoko establezimenduentzako inkesta zehatza.

**Biltzeko metodoa:** establezimenduak zuzenean betetako galdetegia.



#### INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

[Lan-kostuaren urteko inkesta. 2022. urtea.](#)



**CONTACTO | HARREMANETARAKO**

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

